

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

Ingurumen Jasangarritasuneko
Saiburuordetza
Natura Ondare eta Klima Aldaketa
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Sostenibilidad
Ambiental
Dirección Patrimonio Natural y Cambio
Climático



AIZKORRI-ARATZ NATURA-ONDAREAREN NATURAGUNE BABESTUAREN 2. ANTOLAMENDU-PLANA (ES2120002) EGITEN HASTEA ETA AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALAREN MUGAK ALDATZEA. AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA

Sarrera

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Aizkorri-Aratz Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren Natura Baliabideen Antolamendurako 2. Plana (ES2120002) egiten hasteko asmoa du.

Aizkorri-Aratz natura-balio handiko gunea da, eta, gaur egun, Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren tipologia bikoitza du, Parke Natural gisa eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) gisa.

Natura-ondareari buruzko legeriak eskatzen duenez, espazio berean babes-figura bat baino gehiago daudenean, babesaren koherentzia eta figura horien arteko koordinazioa bermatu behar dira, eta, horretarako, dokumentu bakar bat egin behar da, tipologia bakoitza arautzen duten arau espezifikoak eta plangintza-tresnak bilduko dituen. Figuretako bat parke natural bat denean, dokumentu bakarra Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan bat izango da.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua 1. apartatuak xedatzen duenez, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak kontsulta publikoan eskatuko du, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, herritarren iritzia.



Bestalde, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan 3. apartatuak adierazten du aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita. Honako alderdi hauei buruzkoa izango da:

- a. Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b. Araua onartzeko beharra eta egokitasuna
- c. Arauaren helburuak
- d. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak

Aurrekoa betez, eta hura egin aurretik, idazki honen bidez gonbidatzen ditugu herritarrak, irailaren 27tik urriaren 18 arte, idazki hau Irekian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

ERANSKINA.

AIZKORRI-ARATZ NATURA-ONDAREAREN NATURAGUNE BABESTUAREN 2. ANTOLAMENDU-PLANA (ES2120002) EGITEN HASTEA ETA AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALAREN MUGAK ALDATZEA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Aizkorri-Aratz Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren Natura Baliabideen Antolamendurako 2. Plana (ES2120002) egiten hasteko asmoa du.

Aizkorri-Aratz natura-balio handiko eta tradizio luzeko eremua da, eta gaur egun Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren tipologia bikoitza du, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) gisa.

Parke natural izendatu zuten apirilaren 4ko 75/2006 Dekretuaren bidez. Natura Baliabideen Antolamendurako lehen Plana (NBAP) apirilaren 4ko 76/2006 Dekretuaren bidez onartu zen. Bestalde, Aizkorri-Aratz ere Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu da, ES2120002 kodearekin, maiatzaren 31ko 83/2016 Dekretuaren bidez. Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko 9/2021 Legearen 37. artikulua arabera, natura-ondareko naturagune babestuak, besteak beste, parke naturalek eta kontserbazio bereziko eremuek osatzen dituzte.

Egoera horren aurrean, kontuan hartu behar da Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko 9/2021 Legearen (EENL) 38. artikulua 1. puntuan jasotako aurreikuspena; horren arabera, naturagune babestuen kategoria desberdinak leku berean gainjartzen direnean, babesaren koherentzia eta kategoria bakoitzari aplikatutako araubideen arteko koordinazioa bermatzeko, eremu bakoitza arautzen duten arau espezifikoak eta tipologia bakoitza arautzen duen araudi orokorrak eskatzen dituen plangintza-tresnak dokumentu integratu bakar batean bateratu beharko dira.

Aipatutako 38. artikulua, 2. puntuan, berariaz ezartzen du lurralde beraren gainean gainjartzen diren kategorien artean eremu horretarako natura-baliabideak antolatzeke plan espezifikoak duen kategoriaren bat dagoenean, tresna horretan txertatu beharko dela.

Ildo horretan, 83/2016 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenak ezarri zuen izapideak hasiko zirela «Parke Naturalaren eta KBEaren mugak bat etor daitezen eta NBAPa naturagune babestuen bi tipologia arautuko dituen dokumentu bakarra izan dadin».

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua 1. apartatuak xedatzen duenez, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak kontsulta publikoan eskatuko du, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi aurretik, herritarren iritzia.

Bestalde, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua 3. apartatuak adierazten du aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak bete

ahal izango duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita. Honako alderdi hauei buruzkoa izango da:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak

Aurrekoa betez, eta hura egin aurretik, idazki honen bidez gonbidatzen ditugu herritarrak, irailaren 27tik urriaren 18 arte, idazki hau Irekian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

A) EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK:

Aizkorri-Arazko natura-ondarea babesteko bi figura daude: Parke Naturala eta Kontserbazio Berezikotako Eremua, nahiz eta bi espazioen mugak ez datozen guztiz bat. Bestalde, figura horietako bakoitzak helburu espezifikoak ditu, horietako batzuk partekatutakoak. Horren ondorioz, bi espazioen babes-erregimenek ez dute koherentzia egokirik babes- eta koordinazio-lanetan.

Bestalde, indarrean dagoen Natura Baliabideak Antolatze Planak, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko ekainaren 30eko 16/1994 Lege indargabetuaren arabera egin baitzen, ez ditu gaur egun indarrean dagoen Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak tresna horretarako ezartzen dituen gutxienezko eduki batzuk. Besteak beste, ez dago zehaztapenik kontserbazio-helburuak ezartzei buruz, klima-aldaketaren balizko ondorioei buruzko aurreikuspenei buruz eta epe ertainean zein luzean eragina izango duten arintze- eta egokitze-neurriei buruz, edo konektibitate ekologikoa hobetzeko beharrezko neurriei buruz.

B) ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA:

Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko 9/2021 Legearen 38. artikuluen 1. puntuak ezartzen duenez, leku berean naturagune babestuen kategoria bat baino gehiago gainjartzen badira, dokumentu bakar bat egin beharko da, espazio bakoitzaren plangintza eta arau espezifikoak jasoko dituen, eta babesaren koherentzia eta araubideen arteko koordinazioa bermatuko ditu. 2. puntuan ezartzen denez, lurralde beraren gainean gainjartzen diren kategorien artean, eremu horretarako natura-baliabideak antolatze plan espezifikoaren duen kategoriaren bat dagoenean, plangintza-tresna horretan integratu beharko da.

Lege horren 48. artikuluen 5. puntuan ezartzen denez, parke naturalek Baliabide Naturalak Antolatze Plan bat izan behar dute, eta hori da 38. artikuluen 1. puntuan aipatzen den dokumentu bateratua.

C) ARAUAREN HELBURUAK:

1. Aizkorri-Arazko Natura Baliabideak Antolatzeko Plana Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak tresna horretarako ezartzen dituen edukietara egokitzea.

2. Aizkorri-Arazko Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren, Parke Naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren babes-araubide bien arteko koordinazioa eta babesaren koherentzia bermatzea.

3. Aizkorri-Arazko Parke Naturalaren eremua aldatzea, izen bereko KBEarekin bat etor dadin.

D) BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK:

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan berri bat egitea, eta ez da bestelako irtenbiderik ikusten.